

**FUNTSEZKO
ERAGILEEKIN «KLIMA
ALDAKETAREN BIZKAIKO
DIAGNOSTIKOAN»
OINARRITUTAKO
KONTSULTA PROZESUA.**

EMAITZEN MEMORIA

**PROCESO DE CONSULTA
CON AGENTES CLAVE
SOBRE EL «DIAGNÓSTICO
DE CAMBIO CLIMÁTICO EN
BIZKAIA».**

MEMORIA DE RESULTADOS

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
2022KO ABENDUA

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
DICIEMBRE, 2022



LAGUNTZA TEKNIKOA | ASISTENCIA TÉCNICA
ADOS SOSTENIBILIDAD Y CLIMA S.L.
MARAKA KOOP. ELKARTE TXIKIA



MARAKA

AURKIBIDEA ÍNDICE

1	SARRERA INTRODUCCIÓN	4
2	KONTSULTA-PROZESUA PROCESO DE CONSULTA	4
3	KONTSULTA-PROZESUAREN EMAITZA NAGUSIAK PRINCIPALES RESULTADOS DEL PROCESO DE CONSULTA	6
4	ESTRATEGIA ETA IBILBIDE-ORRIA DISEINATZERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO GAKOAK CLAVES A CONSIDERAR EN EL DISEÑO DE LA ESTRATEGIA Y HOJA DE RUTA	12
5	DIAGNOSTIKOAREN ILDOEK ETA EKINTZEK EGINDAKO KONTSULTA-LANAREKIN DUTEN ERLAZIOA RELACIÓN DE LÍNEAS Y ACCIONES DEL DIAGNÓSTICO CON EL TRABAJO DE CONSULTA REALIZADO	13

1. SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiak **lurraldeko funtsezko eragileekin kontsulta prozesu parte-hartzailea** egin du, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari dago-kion estrategia hedatzeko kontuan izan beharreko erronkak identifikatzeko, “diagnostiko aurreratu” agiritik abiatuta.

Beraz, **berariazko bi helburu** izan ditu kontsulta-prozesuak:

1. Bizkaiko lurralde historikoko klima aldaketari dago-kion 2022an egindako **diagnostikoaren emaitzak** funtsezko **eragileei aurkeztea**, eskuratu-tako ondorioak kontrastatzea eta landu beharreko gaiak edo arloak identifikatzea.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak epe laburrean edo ertainean klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren bere estrategia egiteko kontuan izan beharko lituzkeen **erronka nagusiak eta lehentasuneko ekintza-lerroak** identifikatzea.

2. KONTSULTA-PROZESUA

Bizkaiko Foru Aldundiak alde zuzenetik identifikatutako lurraldeko funtsezko eragileekin hainbat lan-saio egitean oinarritu da kontsulta-prozesua. Lan-saioak antolatzeke, gaien edo sektoreen arabera banatu dira taldeetan Aldundiak aurretiaz identifikatutako eragile horiek; gauzak horrela, helburu bera baina ikuspuntu ezberdina izan du saio bakoitzak.

Bost lan-saio egin dira guztira. Hauetatik, lehendabiziko lau lan-saioak aurrez aurrekoak izan dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Bilboko Errekalde Zumar-kaleko eraikinean egin dira; azken lan-saioa, berriz, *online* formatuan egin da.

1. INTRODUCCIÓN

La Diputación Foral de Bizkaia ha llevado a cabo un **proceso de consulta participativo con agentes clave del territorio** para identificar retos a considerar en el despliegue de una estrategia de cambio climático y transición energética, a partir del “diagnóstico avanzado”.

Por lo tanto, el proceso de consulta ha tenido **dos objetivos específicos**:

1. **Presentar los resultados del diagnóstico** de cambio climático del territorio histórico de Bizkaia realizado en el año 2022 a agentes clave, contrastar las conclusiones obtenidas e identificar aquellos temas o ámbitos pendientes por trabajar.
2. **Identificar los retos principales y líneas de acción prioritarias** que la Diputación Foral de Bizkaia debería considerar de cara a realizar su propia estrategia de cambio climático y transición energética en el corto o medio plazo.

2. PROCESO DE CONSULTA

El proceso de consulta se ha basado en una serie de sesiones de trabajo con los agentes claves del territorio pre-identificados por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. Para organizar las sesiones de trabajo, se han dividido los agentes pre-identificados en grupos temáticos o sectoriales, de forma que cada sesión ha tenido un enfoque diferente, pero un mismo objetivo.

En total, se han llevado a cabo cinco sesiones de trabajo, de las cuales, las cuatro primeras se han llevado a cabo, de forma presencial, en el edificio de la Diputación Foral de Bizkaia en Alameda Rekalde de Bilbao; y la última se ha llevado a cabo *online*.

Bost saio, bost ikuspegirekin. Cinco sesiones con cinco enfoques.

1. SAIOA SESIÓN 1		2022.10.26 26.10.2022	
SEKTORE EKONOMIKOA SECTOR ECONÓMICO	ERAKUNDEA ORGANIZACIÓN	ASISTENTZIA ASISTENCIA	
	Energiaren Klusterra Cluster Energia	Ez No	
	Basoa	Bai Sí	
	Goienar	Bai Sí	
	EHNE Sindikatua Sindicato EHNE	Bai Sí	
	ENBA Sindikatua Sindicato ENBA	Ez No	
	BBK Klima	Ez No	
	ACLIMA	Bai Sí	
2. SAIOA SESIÓN 2		2022.11.09 09.11.2022	
GIZARTE ZIBILA, ELKARTEAK SOCIEDAD CIVIL, ASOCIACIONES	ERAKUNDEA ORGANIZACIÓN	ASISTENTZIA ASISTENCIA	
	Unesco Etxea	Ez No	
	OCU	Bai Sí	
	Berdeago	Bai Sí	
	Sare Berdeak	Bai Sí	
	Gure Energia	Ez No	
	Mater Museoa	Bai Sí	
3. SAIOA SESIÓN 3		2022.11.16 16.11.2022	
INGURUMEN ERAKUNDEAK ORGANIZACIONES AMBIENTALES	ERAKUNDEA ORGANIZACIÓN	ASISTENTZIA ASISTENCIA	
	Lurgaia	Ez No	
	Ekologistak Martxan	Bai Sí	
	GreenPeace	Bai Sí	
	Surfrider	Bai Sí	
	Juventud por el clima	Bai Sí	
	Eguzki	Ez No	
4. SAIOA SESIÓN 4		2022.11.23 23.11.2022	
IKERKUNTZAREN SEKTOREA SECTOR INVESTIGACIÓN	ERAKUNDEA ORGANIZACIÓN	ASISTENTZIA ASISTENCIA	
	Aranzadi	Ez No	
	UPV/EHU	Bai Sí	
	Deusto	Ez No	
	Hazi	Bai Sí	
	Neiker	Bai Sí	
BC3	Bai Sí		
5. SAIOA SESIÓN 5 (ONLINE)		2022.12.15 15.12.2022	
ERREFORTZU SAIOA SESIÓN DE REFUERZO	ERAKUNDEA ORGANIZACIÓN	ASISTENTZIA ASISTENCIA	
	Unesco Etxea	Bai Sí	
	Aranzadi (Bird Center)	Bai Sí	
	Lurgaia	Ez No	
	Deusto	Bai Sí	
	Eguzki	Ez No	
	BBK Klima	Ez No	
	ENBA Sindikatua Sindicato ENBA	Ez No	
Energiaren Klusterra Cluster Energia	Ez No		

3. KONTSULTA-PROZESUAREN EMAITZA NAGUSIAK

Saio batzuk eta besteak elkarren artean oso ezberdinak izan diren arren, parte-hartu duten eragileengatik eta saioa egiteko ikuspegiagatik, oro har baterako hainbat emaitza eta ondorio atera ahal izan dira. Jarraian, prozesu osoan zehar detektatu diren **erronka eta gako garrantzitsuak** deskribatzen dira, Bizkaiko lurralde historikorako klima-ekintzarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutakoak.

3. PRINCIPALES RESULTADOS DEL PROCESO DE CONSULTA

Si bien cada sesión de trabajo ha sido muy diferente al resto, debido a los agentes participantes y el enfoque con el que se ha llevado a cabo, en general, se han podido extraer una serie de resultados y conclusiones conjuntas. Se describen a continuación los **grandes retos y claves detectadas** durante todo el proceso, relativos a la acción climática y la transición energética en el territorio histórico de Bizkaia.

Garraio-sistema multimodal, unibertsal, jasangarri eta inklusiboa Un sistema de transporte multimodal, universal, sostenible e inclusivo

Lurraldearen erronkarik handienetako bat garraio eta mugikortasun publikoko eredu bakar baten beharra da, eskuragarria, inklusiboa eta pertsona guztien beharretara egokitutakoa izango dena. Eredu horrek multimodalitatea sustatuko du, lurraldearen erresilientzia ziurtatzeko funtsezko eginkizuna betetzen duena. Gaur egun dagoen garraio-sarea lehenetsiko du, proiektu edo azpiegitura berriak eraikitzearen aurrean, eta bidegorri-sare bat ere sustatuko du, elkarren artean konektatuta egongo dena, irisgarria, eta gainerako garraio-sistemekin koordinatuko dena.

Horretarako, garrantzitsua da motordun ibilgailu pribatua erabiltzeari sustagarria kentzea, eta norbere kabuz modu indibidualean mugitzeko beharra murriztu dadin sustatzea, garraio publikoa aukerarik eraginkor, erraz eta merkeena izan dadin lortuz. Bereziki nabarmenduko da landa-inguruneetarako soluzio jasangarri eta bidezkoak aurkitzeko beharra, pertsona guztien beharrei erantzuteko.

Ezinbestekoa da eredu hori herritarrekin modu lagunkoian sortzea, ikuspuntu guztiak kontuan hartzea ziurtatuz eta erabiltzaileen benetako beharrei erantzunez.

Uno de los mayores retos del territorio es la necesidad de un modelo único de transporte y movilidad público, que sea asequible, inclusivo y adaptado a las necesidades de todas las personas. Este modelo fomentará la multimodalidad, que juega un papel clave en asegurar la resiliencia del territorio, deberá priorizar la red de transporte existente actualmente, frente a la construcción de nuevos proyectos o infraestructuras, y promoverá también una red de bidegorris interconectada, accesible, y coordinada con el resto de sistemas de transporte.

Para ello, es importante desincentivar el uso de vehículo privado a motor y promover la reducción de la necesidad de moverse de forma individual, y haciendo del transporte colectivo la alternativa más eficaz, fácil y económica. Se hará especial hincapié en la necesidad de encontrar soluciones sostenibles y justas para las zonas rurales, de forma que respondan a las necesidades de todas las personas

Es imprescindible trabajar la creación de ese modelo de forma amigable con la ciudadanía, asegurando la inclusividad de todos los puntos de vista, y respondiendo a las necesidades reales de las personas usuarias.

Bidezko trantsizio energetikoa, energia-burujabetza oinarritutakoa Una transición energética justa, basada en la autosuficiencia energética

Energiaren arloko etorkizuneko gakoetako bat lurraldearen energia-burujabetza sustatzea izango da; horretarako, funtsezkoa da energia-komunitateen eginkizuna herritarrengan aldaketa eta ahalduntzea eragiteko. Administrazioen eta instituzioen artean lan egin beharko da, energia-iturri alternatiboen inguruko araudia aldatzeko eta horri bide emateko.

Energia-kontsumoa oro har murriztu beharra dagoen arren, lehentasunezkoa da dauden energia-baliabideak aprobetxatzea eta haiek modu jasangarrian ustiatzea, makroproiektu berriak sortzen hasi aurretik.

Trantsizio horretan, kontuan hartu beharko da energia-sistemeekin lotutako hainbat sektore ekonomiko dagoela, eraldatu egin beharko direnak energia-testuinguru berrira egokitzeko, metamorfosi energetikoa eginez, negozio-eredu berriak bilatuta.

Una de las claves del futuro en el ámbito energético será la promoción de la autosuficiencia energética del territorio, para ello, el papel de las comunidades energéticas es clave como palanca de cambio y de empoderamiento de la ciudadanía, y habrá que trabajar entre las administraciones e instituciones para facilitar y modificar la normativa en torno a fuentes de energía alternativa.

Además de la clara necesidad de la reducción total del consumo energético, es prioritario el aprovechamiento de recursos energéticos ya existentes, y promover su explotación sostenible, antes de crear otros nuevos macroproyectos.

En esta transición, habrá que tener en cuenta que existen varios sectores económicos vinculados al sistema energético actual, que van a tener que transformarse para adaptarse al nuevo contexto energético, realizando una metamorfosis energética, mediante la búsqueda de nuevos modelos de negocio.

Erreferentziakoa den lehen sektoreari balioa ematea Puesta en valor de un sector primario de referencia

Aho batez nabarmentzen da kalitatezko lehen sektoreari balioa eman behar zaiola, tokiko eta hurbileko produktuetan oinarritutako elikagai-burujabetza sustatuz. Erronka handienetako bat da, eta ez lurralde mailan soilik, lehen sektorean belaunaldi arteko erreleboa ziurtatzea, belaunaldi berriek jarduera horretan izan duten beharaldia aurre eginez. Horretarako, tresnak eta baliabideak eskaini beharko dituzte administrazioek, eta erreferentziako lehen sektoreari balioa emateko erraztasunak eman.

Se destaca de forma unánime la necesidad de poner en valor el sector primario de calidad, promoviendo una soberanía alimentaria basada en productos locales y de cercanía. Uno de los grandes retos, no solo a nivel de territorio, es asegurar el relevo generacional en el sector primario, atajando la bajada de actividad por parte de las nuevas generaciones. Para ello, desde las administraciones habrá que ofrecer herramientas y recursos, y poner facilidades para la puesta en valor de un sector primario de referencia.

Paradigma-aldaketa kontsumo-ereduan Cambio de paradigma en el modelo de consumo

Hondakinak modu eraginkor eta jasangarrian kudeatze aldera, hondakin-plan bateratu bakarria behar dela nabarmentzen da, industria-hondakinen zabortegietarako benetako soluzioa jasoko duena, hondakinak beste lurralde batzuetara eramatea saihestuz.

Horretarako, gakoetako bat da jatorrian hondakinak murriztu daitezen sustatzea, “hondakinik onena sortzen ez dena” lelopean, kontsumo propioa murrizteko estrategien bitartez. Sektore guztietan (elika-gaiak, jantziak, garraioa, energia, etab.) kontsumoa murrizteko dagoen beharra da entzute-prozesu osoan nabarmendu diren erroka nagusienetako bat, aho batez uste baita egungo kontsumo-ereduak ez direla jasagarriak epe luzera begira. Egungo ereduaren alternatiba gisa, murrizpen-eredu bat proposatzen da.

Klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrera egiteko funtsezkotzat jotzen diren beste ohitura-aldaketa batzuk ere sustatu behar dira: hurbileko jakiak kontsumitzea, produktuen zirkulartasuna sustatzea, barazkietan oinarritutako elikadura-dietak txertatzea, ekonomia eta industria-ereduan aldaketak egitea, etab.

De cara a una gestión eficiente y sostenible de residuos, se destaca la necesidad de un único plan de residuos unificado, donde se contemple una solución real para los vertederos de residuos industriales, evitando la externalización de residuos a otros territorios.

Para ello, una de las claves es fomentar la reducción de residuos en origen, bajo el lema de “el mejor residuo es aquel que no se genera”, mediante estrategias de reducción del propio consumo. La necesidad de reducción del consumo en todos los sectores (alimenticio, textil, transporte, energía etc.) es uno de los mayores retos destacados durante todo el proceso de escucha, ya que se considera de forma unánime que los modelos de consumo actuales no son sostenibles a medio-largo plazo. Se propone un modelo de decrecimiento como alternativa al modelo actual.

Además, se deben promover también otros cambios de hábitos que se consideran vitales para avanzar en la lucha contra el cambio climático: consumir alimentos de proximidad, fomentar la circularidad de los productos, cambio a dietas alimentarias basadas en vegetales, cambio en el modelo económico e industrial etc.

Fiskalitate berdea, ohitura-aldaketak sustatzeko tresna gisa La fiscalidad verde, como herramienta para promover el cambio de hábitos

Fiskalitate berdea da herritarren artean bizi-ohitura jasagarriagoak sustatzeko gehien errepikatu den tresnetako bat. Enpresa zein norbanakoentzako erreforma fiskal berde bat egin beharra dagoela nabarmendu da, “kutsatzen duenak ordaindu behar du” leloan oinarrituko dena, ohitura jasagarriagoak sustatzeko pizgarri positiboak zein negatiboak promozionatuz.

Una de las herramientas más repetidas para la promoción de hábitos de vida más sostenibles en la ciudadanía es la fiscalidad verde. Se destaca la necesidad de una reforma fiscal verde tanto en empresas como en individuos, basada en el principio de quien contamina paga, mediante la promoción de incentivos positivos y negativos para promover hábitos más sostenibles.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa, jokabideak aldatzeko gako gisa La comunicación y sensibilización como clave para el cambio conductual

Beste erronka garrantzitsu bat da herritarrak paradigma-aldaketa baten, sakrifizio kolektiboaren eta errealtate berri batera egokitu beharraren inguruan kontzientziatzea. Garrantzitsua da jardunbide egokiak sustatu eta aintzatestearen bitartez kontzientziatzea, sakrifizio handiegirik egin gabe ondo egiten dena bistaratuz eta sarituz, eta ez horrenbeste exigentzien bitartez.

Horretarako, lehenengo lana izango da herritarren profil ezberdinak ezagutzea, mezu argi, zuzen eta zorrotzak helarazi ahal izateko, hizkera teknikoa erabili beharrean hizkera arrunt, komunikatzaile eta ulerterraza erabiliz. Teknologia berrien eginkizuna funtsezkoa da bide horretan, eta bide egokiak erabilia, modu berezian irits daiteke profil mota bakoitzeko herritarrengana, haien interesak ukituz eta dituzten kezken arabera kontzientziatuz, haien errealtatean oinarrituta. Kontuan izan behar dira krisi ekologikoarekin lotuta dauden alderdi emozional eta psikologikoak ere.

Azkenik, proposamen zehatz modura, eskola-esparruko irakasleak zein ikasleak trebatzeko eta kontzientziatzeko beharra nabarmendu da entzute-prozesuan, eskola-curriculumean klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren gaia berahala txertatuz.

Otro de los grandes retos es sensibilizar a la ciudadanía de la necesidad de un cambio de paradigma, de un sacrificio colectivo y de adaptación a una nueva realidad. Es importante concienciar mediante el fomento y el reconocimiento de buenas prácticas, visibilizando y premiando lo que se hace bien, sin la necesidad de grandes sacrificios, y no tanto desde la exigencia.

Para ello, el primer paso es conocer los diferentes perfiles de la ciudadanía, para poder hacer llegar mensajes claros, directos y rigurosos, adaptando el lenguaje más técnico a un lenguaje común, comunicativo, y fácilmente entendible. Para ello, el papel de las nuevas tecnologías es clave, y haciendo uso de las vías adecuadas se puede llegar de forma particularizada a cada tipo de perfil, llegando a sus intereses y concienciando desde sus inquietudes y desde su realidad. También ha de tenerse en cuenta la parte emocional y psicológica asociada a la crisis ecológica.

Por último, como propuesta concreta, en el proceso de escucha se ha destacado la necesidad de formar y concienciar tanto a profesorado como alumnado del ámbito escolar, mediante la introducción inmediata de la temática del cambio climático y transición energética en el currículum escolar.

Klima-gobernantzako eredu komuna, zeharkako ardatz gisa Un modelo común de gobernanza climática como eje transversal

Administrazioaren zatiketa eta instituzioen arteko koordinazio falta da erronka handienetako bat, ez klimaren arloan soilik, eta berebiziko garrantzia du herri administrazioen arteko koherentziak eta koordinazioak, baita administrazio bereko maila eta departamendu ezberdinen artekoak ere, araudien arteko koherentzia ziurtatuz.

Klimaren arloan zehazki, klima-gobernantzako eredu baten beharra nabarmentzen da, lurralderako proiektu komun bat, politika publikoen koherentzia eta koordinazioa ziurtatuko duena, eta planteatzen diren estrategia sektorial guztietarako zeharkakoa izango dena; are, ildo horretan, politika publikoen garapena kontrolatzeko eta/edo berrikusteko ahalmena izango duen organismo goren baten beharra.

Zeharkako gobernantza-eredu horren bitartez, gainera, elkarte eta erakunde sozial ezberdinen lankidetzeta eta inplikazioa bila daiteke helburu berari begira, benetako gizarte-sare zibil antolatu bat sortuz. Aliantza horiek promozionatzeko, elkartrukerako espazioak sortu beharko dira (klusterrak edo plataformak), Bizkaiko Foru Aldundiaren lidergoarekin, eragileek eta stakeholder-ek haien esperientziak, jakintza eta baliabideak partekatu ahal izan ditzaten.

La compartimentación de la administración y la falta de coordinación entre instituciones es uno de los mayores retos, no solo en el ámbito climático, y es de vital importancia que exista una coherencia y coordinación entre las administraciones públicas, e incluso entre los diferentes niveles y departamentos de la misma administración, asegurando una coherencia normativa.

En concreto en el ámbito climático, se destaca la necesidad de que haya un modelo de gobernanza climática, un proyecto común de territorio, que asegure la coherencia y coordinación de las políticas públicas, y que sea transversal a todas las estrategias sectoriales que se planteen, incluso la existencia de un organismo supra que tenga la potestad de controlar y/o revise el desarrollo de las políticas públicas en este sentido.

Además, mediante este modelo transversal de gobernanza, se puede buscar la colaboración e implicación de diferentes asociaciones y organizaciones sociales para un objetivo común, creando una red real de sociedad civil organizada. Para la promoción de estas alianzas, se deberán crear espacios de intercambio (mediante clusters o plataformas) liderados por la Diputación Foral de Bizkaia, donde los diferentes agentes y stakeholders puedan compartir experiencias, saberes y recursos.

Herritarren parte-hartzea, politika publikoak diseinatzeko eta egikaritzeko oinarri gisa La participación ciudadana como base del diseño y ejecución de políticas públicas

Ezinbestekoa da egungo edo etorkizuneko gobernantza-ereduek herritarren parte-hartzea politika publikoak diseinatzeko eta egikaritzeko oinarri gisa har dezaten, herritarrak politikak prestatzeko eta ezartzeko subjektu aktibotzat hartuz, eta ez bakarrik kontsultarako edo kontrasterako organo gisa.

Nabarmentzekoa da berez dela erronka bat herritarrengana iritsi ahal izatea eta haiek administrazioaren prozesuetan partaide izan daitezen lortzea. Horregatik, lehenetsuna eman beharko zaio eragileek dagoeneko parte hartzen duten foroetara joateari, foro eta espazio berriak sortu beharrik gabe. Gazteek parte hartzea ere funtsezkoa da, detektatzen baita, gazteen gehiengoa gaur egun kontzientziatuta dagoen arren, instituzioenganako mesfidantza sentitzen dutela.

Horretarako, balioa eman behar zaio administrazioen prozesuetan herritarrek parte hartzeak duen plusari, prozesuari zorrotasuna ematen dion berezko berme gisa ikus dadin lortuz. Parte-hartzeak duen garrantzia ikusarazteko, herritarren parte-hartzeari buruzko prestakuntza eman behar zaie herri administrazio eta erakundeetako langileei, era horretan prozesu arrakastatsuak diseinatu eta gauzatu ahal izateko.

Es imprescindible que los modelos de gobernanza actuales o futuros incluyan la participación ciudadana como la base del diseño y ejecución de políticas públicas, tomando a la ciudadanía como sujeto activo en la elaboración e implantación de las políticas, no solo como órgano de consulta o contraste.

Cabe destacar, que poder llegar a la ciudadanía y hacer que participe en los procesos que se llevan a cabo en la administración es un reto en sí. Por eso, se deberá priorizar acudir a foros existentes donde los diferentes agentes ya participan, sin la necesidad de crear foros y espacios nuevos. Además, la participación de la juventud es también clave, ya que se detecta que aunque actualmente gran parte de la juventud está concienciada, siente desconfianza hacia las instituciones.

Para ello, hay que poner en valor el plus que supone la participación ciudadana en los procesos llevados a cabo por las administraciones, haciéndolo ver como una garantía intrínseca que otorga rigurosidad al proceso. Para poder visibilizar su importancia, se debe formar al personal de las administraciones e instituciones públicas en participación ciudadana, y así poder diseñar y llevar a cabo procesos exitosos.

4. ESTRATEGIA ETA IBILBIDE-ORRIA DISEINATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO GAKOAK

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiak klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko estrategia edo ibilbide-orria diseinatzerakoan kontuan hartu beharko dituen zenbait gako eta elementu garrantzitsu deskribatzen dira, kontsulta-prozesuan detektatu direnak.

- Oso garrantzitsutzat jotzen da estrategia edo ibilbide-orria modu parte-hartzailean eta herritarrekin eta lurraldeko funtsezko eragileekin elkarlanean diseinatzea. Egindako diagnostikoaren kontsulta-prozesua aprobetxatuz, ezinbestekotzat jotzen da dagoeneko parte hartu duten eragileekin lanean jarraitzea, estrategiaren diseinuan ekarpenak egiten jarrai dezaten; gainera, garrantzitsua da beste eragile batzuk ere gonbidatzea eta, era horretan, gizarteko sektore ezberdinak ordezkatuta egon daitezten lortzea.
- Etorkizuneko estrategian ezarri edo gauzatu diren neurriak, ekintzak edo jarduketak diseinatzen direnean, arretaz jokatu beharko da horiek ez dezaten izan desberdinkeriak areagotuko dituzten efektu banatzaileak, hau da, ez dezatela eragin negatiborik izan pertsona zaurgarrienengan.
- Nabarmentzen da beharrezkoa dela klima-aldaketako etorkizuneko estrategia modu integratuean garatzea, ez bakarrik administrazio-mugei erreparatuz, baizik eta, lurraldearen errealitatea kontuan hartuz, gainerako lurralde eta administrazioen estrategiekin koherentea eta harmoniatua izan dadin.
- Azkenik, kontraste-talde ezberdinek garrantzitsutzat jotzen dute estrategiak etorkizunari buruzko ikuspegi baikorra izatea, eta aro berri baterako aukera gisa ikustea, kontzeptu horiek herritarrei helaraziz.

4. CLAVES A CONSIDERAR EN EL DISEÑO DE LA ESTRATEGIA Y HOJA DE RUTA

A continuación, se describen varias claves y elementos importantes a considerar, detectadas durante el proceso de consulta, de cara al diseño de una estrategia u hoja de ruta sobre cambio climático y transición energética, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Se considera muy importante que el diseño de la estrategia u hoja de ruta se realice de forma participada y co-diseñada con la ciudadanía y agentes claves del territorio. Aprovechando el proceso de consulta del diagnóstico realizado, se considera imprescindible que se dé continuidad a los agentes que ya han participado, de seguir aportando en el diseño de la estrategia; además de ampliar la invitación a otros agentes y conseguir así representatividad de diferentes sectores de la sociedad.
- Cuando se diseñen las medidas, acciones o actuaciones a llevar a cabo en la futura estrategia, se debe poner el foco en que no tengan efectos distributivos que agrandan las desigualdades entre personas, es decir, que no afecte de forma más negativa a las personas o colectivos más vulnerables.
- Se destaca la necesidad de que la futura estrategia de cambio climático se desarrolle de forma integrada, no solo atendiendo a las fronteras administrativas, que tenga en cuenta la realidad del territorio, y que esté en coherencia y armonía con las estrategias del resto de territorios y administraciones.
- Por último, desde los diferentes grupos de contraste, se considera importante que la estrategia mantenga una visión optimista del futuro, y verlo como la oportunidad de crear una nueva era, trasladando estos conceptos a la ciudadanía.

5. DIAGNOSTIKOAREN ILDOEK ETA EKINTZEK EGINDAKO KONTSULTANAREKIN DUTEN ERLAZIOA

Jarraian, kontsulta-saioetan identifikatutako erronken eta diagnostikoko lehentasunezko ildo estrategikoen arteko erlazioa jasotzen da. Nabarmen-tzekoa da badaudela saioetan egindako iruzkin batzuk, lehentasunezko ildoekin eta diagnosti-koan proposatzen diren ekintzekin erlazioa ezin daitezkeenak.

Informazio osoa kontsulta-prozesuaren emai-tzen memorian dago jasota.

5. RELACIÓN DE LÍNEAS Y ACCIONES DEL DIAGNÓSTICO CON EL TRABAJO DE CONSULTA REALIZADO

A continuación se recoge la relación entre los retos identificados en las sesiones de consulta con la in-formación base del diagnóstico en cuanto a líneas estratégicas prioritarias. Cabe destacar que existen comentarios realizados en las sesiones que no se pue-den relacionar con las líneas prioritarias y acciones propuestas en el diagnóstico.

La información completa está recogida en la memoria de resultados del proceso de consulta.

ILDO ESTRATEGIKOAK LÍNEAS ESTRATÉGICAS	ERLAZIONATUTAKO ERRONKAK RETO RELACIONADOS
<p>1 Energia-matrizea deskarbonizatzea, aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatuta. Descarbonizar la matriz energética, a través del fo-mento del ahorro, la eficiencia y las energías reno-vables.</p>	<p>R1. Garraio-sistema multimodal, unibertsal, jasan-garri eta inklusiboa. Un sistema de transporte mul-timodal, universal, sostenible e inclusivo.</p> <p>R2. Bidezko trantsizio energetikoa, energia-buru-jabetzan oinarritutakoa. Una transición energética justa, basada en la autosuficiencia energética.</p> <p>R5. Fiskalitate berdea, ohitura-aldaketak sustatze-ko tresna gisa. La fiscalidad verde, como herramien-ta para promover el cambio de hábitos.</p>
<p>2 Emisiotan neutroa izango den lehen sektore bat sustatzea, jardunbide egokiak eta karbono-hus-tulekuak bultzatuta. Fomentar un sector primario neutro en emisiones, a través de buenas prácticas y el impulso de los sumi-deros de carbono.</p>	<p>R3. Erreferentziazkoa den lehen sektoreari balioa ematea. Puesta en valor de un sector primario de referencia.</p>

ILDO ESTRATEGIKOAK LÍNEAS ESTRATÉGICAS	ERLAZIONATUTAKO ERRONKAK RETO RELACIONADOS
<p>3 Ekosistemen zerbitzuak sendotzea eta lurralde-erresilientzia eta hiri-ingurunearena areagotzea. Robustecer los servicios de los ecosistemas e incrementar la resiliencia territorial y del medio urbano.</p>	
<p>4 Sektore ekonomikoek eta azpiegiturek klima-aldaketara egokitzeko duten gaitasuna bultzatzea. Apoyar la capacidad de adaptación de sectores económicos e infraestructuras.</p>	<p>R2. Bidezko trantsizio energetikoa, energia-buru-jabetzan oinarritutakoa. Una transición energética justa, basada en la autosuficiencia energética.</p> <p>R3. Erreferentziakoa den lehen sektoreari balioa ematea. Puesta en valor de un sector primario de referencia.</p>
<p>5 Klima-aldaketak lurraldean eta sektoreetan di-tuen inpaktuei buruz gehiago jakitea. Aumentar el conocimiento sobre los impactos del cambio climático en el territorio y los sectores.</p>	
<p>6 Gizarte osoan klima-aldaketaren inguruko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea, arreta berezia eskainiz herritarrei eta sektore ekonomikoiei. Promover la información, sensibilización y formación sobre cambio climático en el conjunto de la sociedad, con especial atención a la ciudadanía y a los sectores económicos.</p>	<p>R6. Komunikazioa eta sentsibilizazioa, jokabideak aldatzeko gako gisa. La comunicación y sensibilización como clave para el cambio conductual.</p>
<p>7 Maila anitzeko klima-gobernantza bultzatzea. Apoyar la gobernanza climática multinivel.</p>	<p>R6. Klima-gobernantzako eredu komuna, zeharkako ardatz gisa. Un modelo común de gobernanza climática como eje transversal.</p> <p>R7. Herritarren parte-hartzea, politika publikoak diseinatzeko eta egikaritzeko oinarri gisa. La participación ciudadana como base del diseño y ejecución de políticas públicas.</p>

